



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2011ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2011

LITERATURA UNIVERSAL

***Azterketa honek bi aukera ditu. Horietako bati erantzun behar diozu.***

***Ez ahaztu azterketako orrialde bakoitzean kodea jartzea.***

Aukera bakoitzean 4 galdera daude. Bakoitzaren puntuazioa honako hau da:

- 1.galdera, 3 puntu
- 2 galdera, 2 puntu
- 3.galdera, 3 puntu
- 4.galdera, 2 puntu

2., 3. eta 4. galderak derrigorrezko testu eta irakurketei dagozkie. 1. galdera, berriz, irakasgaiaren beste edukiekin lotuta dago.

***Este examen tiene dos opciones. Debes contestar a una de ellas.***

***No olvides incluir el código en cada una de las hojas de examen.***

En cada una de las opciones hay 4 preguntas. La puntuación de cada una de ellas es la siguiente:

- Pregunta 1, 3 puntos
- Pregunta 2, 2 puntos
- Pregunta 3, 3 puntos
- Pregunta 4, 2 puntos

Las preguntas 2, 3 y 4 se refieren al texto y a las lecturas obligatorias. La primera pregunta, en cambio, afecta al resto de los contenidos de la materia.



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2011ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2011

LITERATURA UNIVERSAL

## TESTUA

Ezin nuen jada batere zalantzarik egin fraideen torturarako trebetasunak niretzat prestatua zuen etorkizunaz. Ondo asko zekiten Inkisiziokoek ezagutzen nuela putzua —ni bezalako uko egile setatientzat prestaturiko putzua—, putzua, infernuaren ikurra, esamesek ziotenez zigor guztien azken Tulea zen hura. Istripu batek libratu ninduen putzu hartan erortzeaz, eta banekien ustekabea, edo estiran oharkabean erortzea, osagai garrantzitsua izaten zela espetxeko heriotza haietako bitxikerietan. Ez nintzen erori, eta deabru haiek ez zuten jadanik ni amildegian murgilarazteko asmorik; eta horregatik (ez baitzegoen beste irtenbiderik) bestelako suntsipen bat, lasaiagoa, neukan zain. Lasaiagoa! Nire hiltzorian, irribarre egitekotan egon nintzen hitz horren halako erabileran pentsatu nuenean.

Zertarako eman heriozkoak baino izugarriagoak izan ziren ordu luze, luze haien berri; altzairuaren zabu durundiatsuak kontatzen eman nituen ordu haiek, zertarako aipatu! Ontzaz ontza, mantso-mantso, urteak ziruditen tarteen ondoren bakarrik sumatzen zen jaitsialdian, behera zetorren pendulua, eta beherago! Egunak igaro ziren —egun asko ere igaro bide ziren— harik eta penduluaren arnasa garratza hain gertu pasatzen zitzaidan arte non haize egiten zidala irudi baitzuen. Altzairu zorrotzaren usaina sartzen zitzaidan sudurrean. Errezatu egin nuen, zeruak ere nekatu nituen errezoka lasterrago jaits zedin. Guztiz erotuta, burua zimitarra beldurgarriaren pareraino jasotzeko ahaleginean aritu nintzen. Eta gero bat-batean lasaitu, eta —haur bat litxarrerria bitxi bati bezala— geldi-geldi geratu nintzen heriotza distiratsuari irribarreka.

Penduluaren zabua angelu zuzenean zetorren nire gorputzari buruz. Ikusi nuen bihotzaren aldea gurutzatzeko xedeaz pentsatua zegoela ilargierdia. [...] Ilargierdiak oihala urratzean egingo zuen hotsean gerarazi nuen neure burua, oihalaren igurtziak nerbioetan eragiten duen larritasun horretan. Halako fribolitateen gainean hausnarrean aritu nintzen, ozkiak hortzak erabat hartu zizkidan arte.

Behera, etenik gabe zetorren behera. Plazer zoroa sentitu nuen beheranzko lastertasuna eta albokakoa parekatzean. Eskuinera... ezkerrera...; urruti, zabal, espiritu madarikatu bat bezala intzirika; bihotzeraino, tigrea bezala urrats isilaz. Aldizka barre egiten nuen eta aldizka marru, ideia bat zein bestea nagusitu. [...]

Behera... etenik gabe orain ere... ezinbestean behera orain ere! Arnasestuka eta askatzeko lehian hasten nintzen penduluaren zabu bakoitzean. Ezin adierazizko etsipen eta larritasunaz jarraitzen zieten nire begiek penduluaren atzera eta aurrerako mugimenduei; espasmoka ixten zitzaizkidan betazalak beheraldi bakoitzean, heriotzak atsedena ekarriko zidan arren, eta nolakoa, ai! Baina nerbio guztiak dardar-ikaretan jartzen zitzaizkidan pentsatzen nuenean zeinen arina izango zen aizkora zorrotz, distiratsu hura neure bularrean sarraraziko zuen makinaren mugimendua. *Itxaropenak* ematen zidan dardar egiteko adorea, kuzkurtzeko kemena. *Itxaropena* zen, oinaze estiran gailentzen den itxaropen hori, Inkisizioaren leotzetan ere heriotzara kondenatuei belarrira mintzatzen zaiena.



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
PROBAK

2011ko UZTAILA

LITERATURA UNIBERTSALA

PRUEBAS DE ACCESO A LA  
UNIVERSIDAD

JULIO 2011

LITERATURA UNIVERSAL

## A AUKERA

1. Humanismoaren eragina kontuan izanda, azaldu nolako aldaketak ekarri zituen Errenazimentuak munduaren eta gizakiaren kontzepziora eta aldaketok nola islatu ziren literaturan. Aipatu Errenazimentuko narrazio-prosaren obra adierazgarri bat, eta aipatu haren ezaugarriak.
2. Identifikatu goian idatzitako zatia zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Une historiko hori kontuan hartuz, esan obra zer literatura-mugimendutakoa den, eta aipatu mugimendu horren ezaugarri nagusiak.
3. Zati horrek argi uzten du beldurrezko kontakizun bat dela. Aztertu testua arretaz. Nola lortzen du egileak beldurra sorraraztea? Aztertu sentipen hori areagotzen duten testuko baliabide estilistikoak. Adierazi zein diren egileak lantzen dituen bi beldur motak, eta argudiatu haietako zeini dagokion obra hau.
4. Zer iritzi duzu ipuinaren amaierari buruz? Atsegin duzu, ala huts egin dizu? Azaldu eta argudiatu zergatik, zeure balorazioari jarraituz. Imajinatu putzuan zer egon litekeen, eta esan zure ustez zer sinbolismo izan lezakeen.

## B AUKERA

1. XX. mendeko literatura soziala edo konprometitua. Kokatu eta azaldu, mende horretako egoera historiko-sozialari lotuta. Adierazi hiru generoetako bakoitzean (poesiagintza, eleberrigintza eta antzerkigintza) nola azaltzen den, eta aipatu haietako bakoitza ordezkatzen duen egile bat.
2. Identifikatu goian idatzitako testu zatia zer obratakoa den, eta adierazi izenburua, egilea, nazionalitatea, literatura-generoa eta zer une historikotan kokatzen den. Une historiko hori kontuan hartuz, esan obra zer literatura-mugimendutakoa den eta eman ezaugarri nagusiak.
3. Zatiari arretaz erreparatuz, esan zer prozedura erabiltzen diren kontakizunean pertsonaiaren gogo-aldartea erakusteko, eta lotu egilearen narratibaren ezaugarri tematiko eta formalekin. Aztertu kontatzen den istorioa zer espazio eta denboratan kokatzen den, eta proposatu zer erlazio duen eleberrigintza gotikoarekin eta amaieran Napoleonen armada sartzeak zer balio sinboliko izan dezakeen.
4. Zer iritzi duzu egileak sufrimenduari eta haren ondorio psikikoei buruz ematen duen deskribapenaren gainean? Egokitzen jotzen duzu egileari sadismoa inoiz leporatu izana? Azaldu, zeure erara, zer inpresio eragiten dizuten horrelako kontakizunek.